

# ...eta **kitto!**

723 zkia. 2010-V-28

ASTEKARIA

TOKIKOM

## 45. Euskal Jaia asteburu osoa dantzan jartzeko



Ibilgailuen  
BAJAK eta ALDAGAIAK



**DESGUACEDEBA**

Itxaspe auzoa, 35 - 2. sol. (peaje ondoan) PK 86 - 20820 DEBA - ITZIAR  
Tel. 943 199 492 / 943 199 210 Mabila. 627 373 999  
desguacedeba@desguacedeba.com

NEUMATIKOAK  
BATERIAK  
FAROAK ...



943 199492

**Galdutako hezurra lehenera ekarri dezakegu eta paziente guztiek jarri ditzakete inplanteak, hezurra eta hortzoia oso gutxituta izan arren.**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

Gaur egungo pazienteen gehiengo handi batek hezur-galera izaten du. Hainbat kausa izan daitezke horren atzean: hortz-ateratzeak, kisteak, periodontitisa, zahartzea... eta horrek eragiten du inplanteak modu egokienean ipini ezin izana; kasu horietan, aurrez ez badugu hezurra lehenera ekartzen, emaitza arriskuan jarri daiteke epe ertain-luzean, inplantea galtzea edo funda antiestetikoak eraginez.

## Hezurra lehenera ekarrita INPLANTEAK JARRI DITZAZKEGU KASU ZAILENETAN ERE




**ANTONIO MURILLO** doktorea



**AINHOA ZULUETA** doktorea

## Tratamendu aurreratuenak Irazabal Hartz Klinikari



*Inplantea ipintzerakoan ikusten dugu hezurra falta dela. Emaitza ez litzateke ona izango hezurra lehenera ez bagenuke ekarriko.*

*Klinikoki horrela ikusten dugu.*




Hezuraren kantitatea eta kalitatea jakiteko benetan zenbatekoa den ez da nahikoa erradiografia egitea, inplante bakarri ipini behar bada ere. **Irazabal Klinikari Inplanteak egiten ditugu pazienteari erradiografia panoramikoa eta masalezurreko scanner**

**hirudimentsionala barneratzen dituen lkerketa osoa egin ondoren.** Hori da modu bakarra inplantea dagokion tokian kokatzen dugunaren segurtasuna izateko. Tratamendu hobereana eskaini nahi dugu; horregatik da ezinbestekoa diagnostiko onena izatea.

zurra lehenera ekartzeko teknika Irazabal Hartz Klinikari urteak dira egiten dihardugula egunerokoa bihurtu arte; horretarako, biomaterialak erabiltzen ditugu hezur hutsuneak betetzeko. Erasokorrak apenas izan gabe, guztiz fidagarriak diren interbentzio horiek inplanteak kokatzeko hezur berri perfektua eskainiko


digute. Gaur egun erabiltzen ditugun teknikak ahalbidetzen digute, kasu gehienetan, alderik ez izatea hezurra lehenera ekarri behar izan ez denaren eta ekartzea beharrezkoa izan denaren artean inplantea ipintzerakoan. **Horrek ahalbidetzen du kentzeko eta ipintzeko ordeko hortzeriak derrigorrez erabili behar dituzten pertsonak hortz egonkor eta eroak erabiltzea, eurenak izango ballra moduan.**

Profesional kualifikatuak gara oinarrizko eta aurreratutako implantologian eta, kasu konplexuetan, sedazioak edo anestesia orokorrak egiteko ahalmena dugu ospitalean; horrekin, hortz tratamenduen aurrean pazienteek izaten duten antsietatea eta beldurrak saihesten ditugu, guzti hori sendagile anestesista baten etengabeko gainbegiratzearekin.




*Scanner-ean ikusi dezakegu kiste batek eragindako hezur-galera. Horrela ezin dugu inplenterik ipini.*

He-



*Hezurra lehenera ekarri dugu eta inplantea ipini.*



*Azken emaitza: aldameneko hortzekin parekatuz, ez da alderik nabarmentzen.*

**Zure eskura ipintzen dugu gure klinika eta konpromisorik gabeko aurrekontua egingo dizugu. Azkar elkar ikustea espero dugu.**



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea  
**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Fernando Retolaza

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*)k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**GATZ LARRI.-** Arraina eta, gatzetan ipintzeko erabiltzen den gatz lodia. "Gatzagatik gatz larrixa Debara arraiñandako".

**GATZ ZEHE.-** Mahairako gatz. "Gatz zehia ipiñizu mahaixan".

**GAU BALTZ.-** Ilargirik gabeko gau iluna. "Otsuaren ahua baiño gau baltzagua zan, eta itsuan genbizen lastasavak amaituta".

**GAU GUZTIKO.-** Gau osoa irauten duen parranda, gaupasa. "Atzo, Katillunian, gau guztikua egin dogu lagunok".

## ESKUTITZAK

### "EL CORTE INGLÉS" BERRIA EIBARREN

Betidanik egon da lehen "Galerias Preciados" zelakoa gure herrian eta beraz, guretzat ez da hain harritzekoa horrelako denda bat gertu izatea. Hala eta guztiz ere, euskararekiko izan duen trataera aldatuko zela pentsatzen genuen. Inozenteak gu!

Gure amamak dioenez, ahalegin handia egin dutela igartzen da, euskaraz idatzita dauden hitz asko ikusten baitira denda berrian baina guk ez daukagu hain argi horrela izan denik. "Janari atonduak", "hoztuak", "sukalderako biribilkiak", "probatokiak", "osogarriak", "barrukoak", etb. bezalako hitzak lekuz kanpo daude. Ezinezkoa da euskaldun zahar zein berri batentzat aditzera eman nahi digutena ulertzea.

Bestalde, katalogo batzuk, etiketak eta kartel txikiak gaztelera hutsez aurkitu ditugu eta ez dugu ulertzen honen zergatia. Nekatu egin ziren dena bi hizkuntzatan jartzeaz?

Azkenik, irriti eta bestelako hedabideetan denak langileen %100ak euskaraz jakingo zuela esan ziguten. Beraz, hasieran saldu zigutena ere ez dute bete.

Lau dendaritik bik soilik ulertu ziguten komuna non zegoen galdetu genienean eta horietariko batek barrik erantzun zigun euskaraz.

Gure herrian dagoen denda bat izanik, gure esku-bidea da euskara erabili ahal izatea bertan eta horregatik erreklamazio liburuan gure iradokizunak idatzi ditugu. Zuk ere egiten baduzu, agian, kasu egingo digute. Euskaraz bizi nahi dugulako.

**EIBARKO EHE**

### MAIATZAK 29, EUSKAL GAZTERIA BRUSELARA

Gure aukera den Independentzia lau haizetara zabaltzeko. Gaztea izatea eta Independentziaren alde jardutea kriminalizazio eta errepresioaren bidez ordaintzen dela salatzen. Independentziaren aldeko jardunaren zilegitasuna ozen aldarrikatzeko. Europako Batasunaren estatueta gertatzen diren oinarriko eskubideen urraketak geldiaraztea Europari exijitzeke. Espainiar zein frantziar Estatuena gabezia demokratikoa agerian lagatzeko. Bi estatuak urratzen dituzten eskubide zibil, politiko zein sozialen defentsan harresi demokratikoa eraikitzeke. **Eskubide Zibil eta Politikoak Euskal Gazteriarantz.**

**EIBARKO GAZTE ABERTZALEAK**

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Hilabete biko haurtxo baten begiradak estimuloei jarraitzen dio; aurrean duen pertsonari begiratzerakoan, jendeak maitasuna ikusten badu ere, ez da beti horrela. Xake-taula batek ere bere arreta piztu dezake eta hori ez genuke esango maitasuna denik. Aurrean duenaren begien mugimenduak erakartzen du haurtxoa. Urte birekin euren kontzientzia hartzen doaz eta, autoafirmatzerakoan, horregatik hasten dira guztiari ezetz esaten eta besteengandik desberdintzen"

(Michael Posner, aitizindaria neurozientzian)

"Ilargira edo Martera joan gaitzeko eta berriro itzuli, baina distantzia batetik gora baldin bagoaz, ezin izango ginateteke itzuli. Edo itzultzen bagina, 100 edo 200 urteren buruan itzuliko ginateteke. Horregatik daude mugak inguru horretan. Prest al gaudete jendea urruneko planeta batera igortzeko? Arazoa bidaiatzeko denboran dago. Argiaren abiadan bidaiatzeak arazo filosofikoak sortzen ditu, teknikoak baino gehiago: jendea guztiz beste mundu batera itzuliko litzateke"

(Leopold Eihartz, espazioan izan den euskaldun bakarra)



**EIBARKO UDALA**



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria**

# autuan

## ISUN HANDIAGOAK

Trafiko-lege berria indarrean sartu da aste honetan eta, ondorioz, legea betetzen ez dutenei ipinitako isunak orain arte baino gogorragoak izango dira aurrerantzean; besteak beste, puntuen galera dakarten isunak 200 eta 500 euro bitartekoak izan daitezke.

## OFIZIAL LANPOSTUA

Udalak lehiaketa-norgehiagoka askearen jardunbidez, ofizio askotako ofizial lanpostu bat betetzeko deialdia egin du. Besteak beste, honakoak dira kontuan hartu beharrekoak: sailkapen taldea (D taldearekin parekatua), balorazio-maila (9), hizkuntza eskakizuna (1a, ez derrigorrezkoa) eta lanaldia (egun osokoa).

## 8.000 EURO HAITIRA


Haitira laguntza bidaltzeko parrokien kanpainak 8.186 euro batu ditu, 6.560 sarreraren salmenta eta donatiboekin eta, gainontzekoa, kanpainarekin bat eginda, herriko hainbat dendatan ipinitako itxulapikoetan.

## Hiri-altzari berriak

**UDALAK JARDIÑETA 1-3, UBITXA (22. ZENBAKIAREN ALBOAN), BARRENA (LIDL ALBOKO GUNEAN), TXONTA (AUZOAREN GOIKO ALDEAN), Txaltxa Zelai (Untzagako dorretako atzealdean) eta Tiburzio Anituako (Kutxako bulegoen parean) jolas-guneak berrituko ditu datozen hilabeteetan, ohar baten bidez aurreratutakoari jarraituz. Horrez gain, herriko kaleetan dauden paperontziak ere berritu egingo ditu: Untzagan eta inguruan dauden kolore urdin eta triangelu**

itxurako paperontziak herriko beste tokietan ere erabiltzeko moduan egongo dira las-ter. Eta, berrikuntza-lanekin jarraituz, Amañako tren-gelotoki gainean dagoen komuna ere berritu egingo dute. Guztira 373.500 euro erabiliko ditu Udalak hiri-altzari horiek guztiak berritzeko.

Bestalde, herriko lorategiak sasoian sasoiko landare eta lorekin apaintzeko 34.000 euro erabiliko dituzte eta Juan Antonio Mogel auzoan gune estalia egiteko, berriz, beste 17.500 euro.



34.000 euro erabiliko dituzte sasoiko loreekin herriko parkeak apaintzeko. / SILBIA HERNANDEZ

## Novia Salcedo saria Teknimapentzat

**TEKNIMAP ENPRESA EIBARTARRAK NOVIA SALCEDO FUNDAZIOAK BANATZEN DUEN GAZTEEN INTEGRATZIO PROFESIONALAREN** Nazioarteko III. saria jaso zuen martitzenean. Asturiasko printze eta printzesaren eskutik jaso zuen saria Felipe Gisasola Teknimapeko zuzendariak, Bilboko Campos antzokian.



Sari emanaldian Asturiasko printze eta printzesa izan ziren.

Ingurumenaren arloan lanean diharduen enpresa da Otaola Hiribidean dagoen Teknimap eta euren egituraren gazteen integrazioa bultzatu dutelako (generoa eta hezkuntza planari jarraituz) eman diote saria. Hamasei urte daramatza martxan Teknimapek eta ingurumenaren gainean jakinmina duten gazteak batuz etengabe hazi da.

**Bermeo ibilaldia**  
marigoran kibunbera  
Bermeo 2010

**maiatza 30 ean** **autobus zerbitzua**

**Irteera 09.00etan Ego-Gainetik**  
**Itzulera 19.00etan**

**8 euro**

J.A. Mogel  
Ikastolako  
Guraso Elkarte  
...eta kitto!  
Euskara Elkarte

**txartelak ...eta kitto!-n**

**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**  
KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

**Radio Eibar** **CADENA SER**

**104,0 FM**



## Greba jardunaldia metalean

**GAURKO GREBA DEITU DUTE LAB, ELA ETA CC.OO SINDIKATUEK METALEAN DIHARDUTENENTZAT.** Gaurkoa lau greba jardunaldietatik lehena izango da: hurrengo greba deialdia ekainaren 4rako egin dute aipatutako sindikatuek. Ekainaren 10erako eta 11rako deialdiak, berriz, LABek eta ELAK baino ez dituzte egin. UGT-k, berriz, greba deialdie-

tatik kanpora geratzea erabaki du. Grebarako deialdia metalearen hitzarmenean jasota dauden 23 puntu indargabetzeko ADEGI-ren asmoari erantzuteko egin dutela azaldu dute sindikatuetak ordezkariek.

Bestalde, aste honetan bertan funtzionarioek eta osasun arloko beharginek, zaharren egoitzetakoekin batera, euren aldetik protestan jardun dute.

## Emakume ekintzaileen ekimena

### EKINTZAILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATU ZEN MAIATZAREN 18-AN.

Zentzu horretan, EMEKIN proiektuak emakume ekintzaileak sustatzeko lanean dihardu eta Somos Asesores enpresa eibartarrak bat egin du ekimenarekin. EMEKINen helburua



Gipuzkoan emakumeek sustatutako enpresa proiektuak bultzatuz enpleguaren sorrera indartzea da, eta horretarako, enpresa bat sortzeko prozesua lagunduko duen sistema integral berri eta personalizatua antolatzeko asmoa dauka. Honen gainean informazio gehiago lortu nahi izanez gero 900 701 132 telefonora deitu edo [www.emekin.net](http://www.emekin.net) webgunera jo.

## Krisia aztergai

**EZKER BATUA-BERDEAK ETA IDI EZKERRA FUNDAZIOAK KRISIAREN INGURUKO JARDUNALDI AK ANTO-LATU** dituzte datorren asterako. Ekainaren 3an, eguenean, 19.00etatik aurrera Juan Sánchez-Vallejok osasun-sistemako

murrizketen inguruan hausnarketak egingo du Portaleko ikastaro gelan. Jardunaldiek hurrengo astean jarraipena izango dute, ekainaren 10eko hitzaldiarekin: pentsioen inguruko murrizketez jardungo du Eduardo García, toki eta ordu berean.

# anzorik anzo



## Aparkalekurako aukerak aztertzen


**Errebalen egindakoaren bidetik, Valenciaga (Mendiguren y Zarraua) enpresak bete zuen orubea behin-behineko aparkaleku bihurtzeko aukerari heldu dio Udalak.** Torrekua eta Otaloa hiribidearen bitartean dagoen lurzorua ezertarako erabiltzen ez dela eta hilabeteek aurrera egiten jarraitzen dutela ikusita, Udaleko ordezkariek orubearen jabearekin, Eibarberri enpresarekin harremanetan hasi da eta, oraindik ezer erabaki ez badute ere, badiudi Udalak behin-behineko aparkalekua prestatu nahi duela. Orain hutsik dagoen orubean tailerra egonenez, legeak lurzorua kutsatuta dagoen ala ez ondo aztertzea agintzen du eta horretarako lehenengo pausoak honezgero eman dira. Hala ere, aparkalekua atontzeko proiektuak aurrera egingo balu, Udalak kutsaduraren inguruko azterketa zehatzagoa egingo lukeela aurreratu du. Horrez gain, orubean zenbat aparkaleku sortu daitezkeen eta beste hainbat kontu ondo aztertu behar direla azpimarratu dute. Hala ere, lehenengo elkarrizketen ondoren, jabeek Udalaren proposamena begi onez ikusten dutela diote. 2008. urtearen amaieran eraitsi zuten Mendiguren y Zarraua hartu zuen eraikina eta, hurrezgero, ez denez ezertarako erabili, orubearen erabileraren inguruko hainbat zurrumurru zabaltzen joan da tarteka marteka.

## eibar kalea

### Estaziño kalea

Kaleari izena ematen dio tren geltokia lehenengoz berri zela 100 urte bete ziren iazko abenduan eta, izena ez ezik, bestelako bizitasuna eman dio trenak kaleari: besteak beste, San Juan jaien hasiera ofizialari ekiten dion Lizarrako dultzaineroei ongietorria emateko ekitaldiak trenarekin lotura zuzen-zuzena dauka.

**Pegora kopurua: 16. Erroldatutakoak: 284.**



asteko  
**15.000**  
datua

automobil eta kamioi pasatzen dira AP-1 autopistatik egunero Eibar-Bergara tartean; bestela, eguneko batzbestekoa errepidearen ibilbidea osotasunean hartuta 10.800 ibilgailukoa da. Urtebete zabalik daraman errepidean dabilzaten ibilgailu kopuruan iazko apiriletik hona %45ekoigoera egon dela adierazi dute Foru Aldundiko ordezkariak.

## Ekintzaileei errekonozimendua

**EKINTZAILEAREN EGUNEAN EKITALDI BEREZIA HARTU ZUEN DEBEGESAKO EGOITZAK** eta, besteak beste, Debabarreneko hainbat enpresa-esperientzia berritzaile ezagutzeko aukera izan zuten parte hartu zutenek. Horrez gain, hainbat ekintzaileri errekonozimendua egiteko aprobetxatu zuten eguna: Irmotasunari errekonozimendua Suar Aizpuru-PC Prest-ek jaso zuen; taldean lan egiteari errekonozimendua Erik Vigara, Juan Antonio Fer-



Aurten ekintzailearen egunean errekonozimendua jaso dutenen argazkia.

nández eta Anselmo Vigarak (Inntek); Iniciativa Plus errekonozimendua Nagore Tenak (Yan Arte Desinging); eta Bai Industriari! Errekonozimendua,

berriz, Iñigo Pérez Arregi (EPC enpresa), Eduardo Zubiaurre (JAZ-Zubiaurre), Jesús Mari Iriondo (MASER) eta Jon Ander Buenetxeak (Alfa) jaso zuten.

## Ekodiseinua Makina-Erremintan

**TEKNIKERREK MAKINA-ERREMINTAN EKODISEINUA-REN ALDEKO APUSTUA EGINGO DU MAIATZAREN 31-TIK EKAINAREN 5-ERA ARTE** Bilbao Exhibition Centre-n egingo den Makina-Erremintaren Biurtekoan (BIEMH). Azokak sektoreko berrikuntzak eta bestelakoak batuko ditu eta, Teknikerrekin batera, Eibar eta eskualdeko hainbat enpresak hartuko dute parte, euren produktuak ezagutzera emateko.

Sektore honetan ekologiak bere lekua duela uste du Teknikerrek eta berrikuntzaren aldetik, kostuen murrizketaren aldetik eta alde ekonomikotik. Horren gainean kontzientziatu eta sentsibilizatzeko joku interaktiboa eskainiko du BIEMH-en.



Ekodiseinuaren aldeko apustuaz gain, 3D-ko neurketa egiten duen errobota eta lebitazio magnetikoko buru bat erakutsiko ditu Teknikerrek BIEMH-n. 3D-ko neurketa teknologia honek ekoizpenaren egiaztapena ahalbidetzen du %100ean kontakturik gabe, bezeroari kalitate eta azkartasun handiagoko, eta prozesu-kostu eta piezen ukaketa murrizteko produktua eskainiz. Lebitazio magnetikoko buruak, bestetik, emaitza interesgarriak eskaintzen dizkio Makina-Erremintaren sektoreari.

Urte birik behin egiten den azokak 26. edizioa beteko du aurten eta orain arte 44.500 lagunek joateko asmoa dutela baieztatu diete antolatzaileei.

## Anbulatorioa zabalik asteburuetan

**ASTE BURU ETA JAIEGUNETAN LEHEN MAILAKO ARRETA ESKAINTZEKO ORDUAN** Osakidetzaren proposamenak ez du eraginik izango Eibarren. Horrela, ez da murrizketarik egingo ez ordutegiari, ez langileari dagokienez. Eibarko Udalak, herritarren kezka aurrean, jakitera eman du herrian ez dela aldaketarik egongo.


Gipuzkoako Batzar Nagusietan, bestetik, ambulatorioak zapatuetan zabalik jarraitzeko eskaera egin du Ezker Batuak aste honetan bertan. Arantza Gonzalez EB-ko batzarkidearen ustetan, neurri honek kalte larriak sor ditzake herritarren artean, izan ere, *"jendeak ohizkoa ez duen zentro batera joan beharko luke, askotan urgentzietara, eta han hartu beharreko jende kopurua asko handitzea eragingo luke"*.



## JOSE ANTONIO PEÑA ESTRELLA (2010-V-17AN HIL ZEN)

*Gure ondotik juan zara, baiña kuadrillan beti izango zara gure bihotzian*

**ZURE KUADRILLA**



# #Gipuzkoa

| lan  
munduratzeara

| herrilan  
eta azpiegiturak

| enpresei  
laguntzea

| teknologia  
eta berrikuntza

## Krisiaren aurkako 2010 Plana 100 milioi euro


Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea  
eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren  
aldeko apustu irmoa dela medio.



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## Zer begittantzen jatzu lan-ordutegixa aldatzia?



**ANDER ARANBERRI**  
22 urte  
kazetarixa

Ez dot sekula planteau zer komeni jatan. Nik arratsalde egitten dot biharra eta bazkaltzeko denporaz ondo ibiltzen naiz. Jendiak normalian bazkaltzeko dakan tar-te hori nik afaltzeko eukitzen dot. Nahixago dot denpora gehixago euki bazkaltzeko eta geruago urten biharretik.

**EVA RODRÍGUEZ**  
34 urte  
peoi espezialista

Nik nahixago dot Europan egitten dan ordutegixa jarraitzia, jateko denpora gitxiago euki eta beharretik lehenago urtetzia. Umiak badittuzu hobe da holako ordutegixa eukitzia famelixako bizitzia adiskidetzeko. Bestela, lanetik berandu urten, afaldu eta ohera juan bihar zara segiduan.




**CRESEN ARISTONDO**  
66 urte  
etxeoandria

Hamen hainbat aukera dakaguz: jarraixan jardun edo etenaldixa eginda. Nik ez dot sekula biharrik egin, baiña inguruan ikusten dotenagaitik nahixago dot bazkaltzeko denporia hartzia. Semelabak prisaka jaten ikusten dittut batzutan eta hobe da trankillago bazkaltzia.

**JOSE MALMIERCA**  
31 urte  
obra-burua

08.00etatik 17.30etararte egitten dot normalian, izan be, neri gehixen komeni jatan ordutegixa da. Bazkaltzeko ordu erdixa eukitzen dot eta lehenago urtetzen naiz. Jefiak ez desku horregaitik ezer esaten eta komeni jakun moduan moldatzen gara. Holan, egoerian arabera aldatzen dot ordutegixa.



**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizeta 20 - beheko, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del  
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa laboa  
Egokibetan (Signo poligonar)  
Partikular, mitua eta osaguri enxei zerbitzuak  
Koroak - Eskelak - Urteumanoak - irribak  
Euskal Herri osoko ospitaleetan bertan 20 lugu  
Nazio eta Nazioarteko irribak

**Mugica**  
Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

**ESTUDIOS**  
**ARRILLAGA**

PROIEKTUAK  
ERREFORMAK

LOKALAK  
ETXEBIZITZAK

**Arragueta, 12 EIBAR**  
Tel. 943 20 06 98

**ELGOIBAR Errosario, 15**  
Tel. 943 74 40 19





Aurreko domekako “Aurrez Aurre” dantza ikuskizunarekin hasi zan aurtengo Euskal Jaixaren ediziñua, 45.ena. Atzo arratsaldian Deporren jokaturako Kalamuako Parlamentuko lehiaketiarekin heldu zetsan barriro aurtengo programaziñuari eta gaurtik domekaraiño ez dau atsedetik hartuko: musikia, dantzia, ferixia, herri-kirolak, umiendako jokuak, triki-parrandia, afari eta bazkarixak... Danetik gozatzeko aukeria izango da, ixa mugidu barik kalia bertan izango dogulako ikuskizunetako partaide izatia...  
**BASARRITTAR JANTZITTA BADA, HOBE!**  
Hori da Deporreko antolatzailliak egindako deixa.

## Astebururako plana eskintzen dau Euskal Jaixak

**G**aur, 17.00etatik aurre-  
ra, 5etik 8ra urte bittar-  
tekuak eta euren gura-  
suak jolasian jarduteko aukerai  
izango dabe Untzagan. **Txispi-  
tak, Txisposak eta Katzarrok**  
lagun-girua zirko-girua bihurtu-  
ko dabe. Ikasturtian ikastetxi-  
tan landutako jolas asko kalera  
etarako dira holan eta akroba-  
ziak eta malabarrak euren toki-  
xa izango dabe Astixak koordi-  
nauko daben jolas egitteko tar-  
te horretan.


Gabian, 23.00etan hasitta,  
izen haundixa lortu daben Arra-  
sateko **Gose taldia** kontzertua  
eskinduko dau Untzagan. Trikiti-  
xa eta elektronikia uztartuz, bes-  
telako musikia egittia lortu dau hi-  
rukotiak eta euren azkeneko la-  
naren abestixak eskintzeko as-  
muarekin datoz, “gure onena  
emoteko” diñoskuen moduan.

### Erakustaldixak azokian

Ez da bakarra izan egitaraua  
antolatzen, baiña bai ardura  
gehixen hartuko zebana. Maria-  
no Lukek egun zalapartasuak  
izan dittu azken aldixan dana lo-  
tzen eta **zapatu** goizeko ferixia-  
ri garrantzi haundixa emoten  
detsa, “herriko jende asko impli-  
katzen dalako”. Beste urtieta-  
kueri jarraituz, artisauak izango  
dira nagusi, baiña ez dira faltako  
basarritarrak eta “aurten era-  
kustaldixak be izango dittugu:  
Igor Obesok eskinduko deskun  
kristal haizatuarena eta raku  
modalidadiarena, Zeramika Es-  
kolakuak erakutsiko deskuena”,  
diño Lukek. **Ferixiak goizeko  
10.00etan hasi eta eguerdiko  
14.00xak arte** iraungo dau, “Ei-  
barko 16 artisauekin eta kanpo-  
ko beste seirekin; horrez gain,  
zortzi izango dira euren produk-  
tuak gure eskura jarriko dittuen  
basarritarrak”. Talo postuan be  
goiz osuan jardungo dabe la-  
nian, T. Etxebarria kalia.



35 postu izango dira guztira Toribio Etxebarria kalia zapatu goizian. Eguerdixan herri-kirolak ikusteko okasiñua izango dogu. / **LEIRE TURBE**



Eguerdian **herri-kirolen  
eta bertsolarixen** ordua izango  
da. **12.00xetan** Beñat Telleria  
eta Goenatxo III.a harrijasotzai-  
lliak eta Aritz Irazabal eta Aratz  
Mugerza aizkolarixak lanian ha-  
siko dira. Betiko moduan, nor-  
malian horretan jarduten dabe-  
nak dira, baiña gaztiak aldi be-  
rian. Iñaki Osoro arduratzen da  
jardun hori prestatzen eta, be-  
rak dioskunez, “gaztien alde  
egittien dogu beti be”. Zer esanik  
ez, 13.00etan hasiko dan Esko-  
len Arteko Herri-kirol Lehiake-



Euskal Jaixa non, trikitilarixak han. Geratu barik ibilliko dira asteburu osuan, parrandiak be neurtu biharrian, baiña asmatuko dabe. / **FERNANDO RETOLAZA**

tan. Laugarren ediziñua beteko dau aurten eta "Itzio, Mogel-Isasi eta Aldatzeko DBHko 3. mailak hartuko dabe parte. Sokatiran eta kaskara-batzian jardungo dabe, bost neska eta bost mutillekin osatutako taldeitan", diño Osorok. Jasotzen daben sarixa, gaiñera, eskolako ekintza batian erabiltzeko konpromisua hartzen dabe eta, "askotan, ikas-biajerako izaten da".

Arratsaldian, **bertso-triki herri parrandia** izango dogu kailian. Hankamotxak-eko herriko bertsolariak eta trikitilariak giro berezixa sortuko dabe **18.30xetan** Untzagako karpantik urtengo diran momentutik. Trikitilariak be ez dira gitxi izango, Aintzane Agirrebeñak komentau deskunez: "Eibarrorokin batera, Bergara, Oñati, Azkoiti, Urretxu, Villabona eta Markiñakuak be izango dira, hamabostetik gora".

#### Kantutegixa prestatzen

Batzuk hasiko ziran honezkerro, egokittu jakuen abestixa jakiñ eta berehala. Asmo horrekin sortu eben zapatu gabeko **kantu-afarixa** antolatzailliak, "jendiaren parte-hartzia bultzatziarren, batez be". Holan, jende eta talde askok emoten dau izena kantu-afarixan parte hartzeko: "Berrehundik gora aurten be". Afarixa Untzagako karpan egingo da, gabeko **22.00etan** hasitita eta, tripiak kejtazeko motiborik ez dakala ikusten danielan, han hasiko dira Jainaga eta Narbaizaren doiñuak jendiari kantatzera deika, erromerixiarekin amaittu aurretik.

**Gaur, 23.00etatik aurrera, Untzagan izango da Gose Arrasateko taldea. Talde berezixa, trikitixa eta elektronikia uztartzen jakiñ izan dabena. Hiru taldekide ditu: Iñaki Bengoa Bad F-line taldean ibillittakua; Osoron, Gatillazo taldeko gitarra-jolia izandakua; eta gurekin berba egin dabena INES OSINAGA, abeslarixa eta soiñujolia, aurretik Ekon taldean jardundakua.**



## “Musikiaren mezua hizkuntzatik haratago doa”

#### - Abestu dozue aurretik Eibarren?

Arrate Eibar bada, han izan giñan oin dala urte bi. Girua be arrarua izan zan: erromerixak eta halakuetara ohitutako esparruan, rock kontzertua eskindu genduan. Baiña oso ondo jua zan dana.

#### - Eibarko Euskal Jaixaren barruan parte hartziak zeozertan aldatuko deusue erreperatoriua?

Ez dot uste! Ez gara euskal jai zaliak gu, sagardo-egun zaliak ez garen moduan. Kontraesankorra iruditzen jaku-eta urtian beste 364 egunetan eskinten ez dana egun bat hartu eta disfazarekin irten biharra. Euskal folkloriaren alde gagoz, baiña lasai, ez gara basarritar jantzitta igoko eszenarixora. Hori bai, lagun asko ditugu hor inguruan eta gure onena emotera goiaz.

#### - Zer abestuko dozuen aurreratzerik bai? Zuen hirugarren lana hartuko dozue ardatz?

Horren inguruan gabiz egitten azken kontzertuak eta, bai, azken diskokua eskinduko dogu batez be. Talde gertukuenak ditugun bersiño bat edo beste be egingo dogu. Zeiñenak? Laga dai-gun misterixo pixka bat.

#### - Udarako programaziñua beteta dakazue? Inguruan ibilliko zari?

Taldia sortu genuenetik, hondartza gitxi bisitatu dogu. Euskal Herrixan jaixak nonahi dira hamendik aurrera eta hor jardungo dogu, geratu barik. Ziur egon irailian zuri-zuri egongo garala. Horrez gaiñ, estudixuan sartu eta disko barrixa prestatzen hasiko gara.

#### - Laugarrena prestatzen? Noizko? Aldatzeko asmorik badozue, beste zeozer probatzeko?

Disko berezixa izango da, hori bai. Halanda guz-

tiz be, Gose izaten jarraituko dau. Urte amaierarako-edo zeozer erakusteko moduan egongo gara.

#### - Jasotako kritikiak zelako eragiña daka zuengan?

Talde gitxiak batu dituan arluak bildu dituu guriak eta normala da holakuetan kritikak be gehixago izatia: onak eta txarrak. Danak dira ongi-etorrixak, gero igual kasurik egiñ ez arren. Relatibizau egin bihar dira, gaiñera; eta, ahal bada, ikasi. Aurreus-tiak be badagoz: trikitixa beti tradizionalizat hartu izan da, baiña elektronikuan be antzerakuak ikusi leikez; arau modukuak toki guztietan dagoz, musian be bai. Guk zer esan geinke? Zure buruari aukeria emoteko, baiña ez bajatzu gustatzen, gurekin denborarik ez galtzeko.

#### - Hamendik kanpo be jardun dozue? Badozue bereziki gustora sentidu zarien tokirik?

Kataluñian asko ibilli gara eta bikaiñ ulertzen gaitue han. Turkiako Kurdistango hiriburuan emondako kontzertuari be kariño handixa detsagu, jendiarengandik oso gertu sentidu giñan. Hango historia aberatsa ez da Halcón bidaietako pakietian iñondik iñora agertzen.

#### - Horregaittik diozue batzuetan hamendik kanpo hobeto ulertu deusuela?

Badago hortik zeozer: igual etxetik gertu ondo, baiña Madrillera jua eta piperrik be ez zaitue ulertzen. Musikiaren mezua hizkuntzatik haratago doa: komunikatzia lortu bihar dau eta hor ez dago mugarik. Tokioko puntan be ikusi zeinke jendiak zurekin egitten dabela bat: guri gertau jakun.

#### - Eibarko jarraitzaillendako mezurik?

Euskal Jaixak ondo aprobetxatzeko eta gaiztuak izateko, bildur barik.



**San Andres  
Gozotegia**

● **tartak**

● **enkarguak**

● **etxera**

**Bidebarrieta, 28**

☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan      Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

## NTRA. SRA. DE BEGOÑA

### EHORZKETA-BEILATOKIA

● KOROAK   ● ESKELAK   ● HILARRIAK   ● AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:      ZERBITZU IRAUNKORRA:

Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.      ☎ 943 201095      Fax: 943 202564

**Domekia** egun haundixa izaten da Euskal Jaixan. Goiz-goi-zetik eta ixa illundu arte, herrixa dantzak hartzen dabe-eta. Eguerdiko kalejiriak **12.00xetan** urtengo dau **Urkizutik** eta, tal-diak, gaiteruak, joaldunak eta trikitilarixekin, **Untzagaraiñoko** bidia egingo dabe, handik ordu erdira Ezpalak, dantza-jauzixen naziñoarteko jaialdixa eskintzeko plazan. Bosgarren urtia da aurtengua, *Kezka dantza tal-*

*diak antolatzen dabela jaialdixa gai baten inguruan egituratzen dala*”, Oier Araolazak diñuan moduan. Aurretik, ezpata-dantzak, makilla-dantzak, arku-dantzak eta karaktere-dantzak izan dira; aurtén, dantza-jauzixak. Kezkarekin batera, Nafarroako Baztandarrak, Biarnoko Osseaukuak, Donostiako Argia-kuak eta Lapurdiko Maritzuli-kuak izango dira, jarraixan dantzaldi-irekixa egiñaz.



Tabernetan gero eta gitxiago kantatzen dala diñue batzuk. Ikusiko dogu! / **LEIRE TURBE**



Lotsak alde batera lagato, jarduten dabe herriko ahots urratuenak kantu-afarixan. / **LEIRE TURBE**

**14.30xetan herri bazkarixa** egingo da, urtero bezala, karpan. Eta, sabela bere onera etorri eta gero, **erromerixia** hasiko da, **17.00etan**, Aiko taldiarekin Untzaga plazan. Horri jarraituko detse haiñ herrikuak bihurtu diran **larrain-dantzak**: batzuk hor ibilliko ziran azken hamabostaldixan dantza honek prestatzen, beste batzuk konprobauko dabe

zenbateraiño ahaztu jakuen iazko pausuak... baiña edozeiñek hartu ahal izango dau parte. **19.00etan** Untzagan egingo danak handik ordubetera jarraipena izango da Deporren aurrean. Hor izango da amaieria, batzuk nahi izan ez arren. Eskerrak emon bihar Deporri guzti hori antolatzen lagundu detsen Udalari, Kultura, Kutxari eta Debemeni.

# LARANJAZ JANTZ ZAITEZ

**Euskaltel**

**Euskadi**

**%20**

irabazteko



Gure denda  
aurreko duot  
bataz bestekoa

maglota = 34,95 €
kalota = 42,95 €
maglota + kalota = 52,95 €

Errebal, 5 Elbar ☎ 943 53 07 20




TEEN-  
AJEA



Ipar Irlanda, Ingalaterra, Eslovenia, Espainia eta Euskal Herriko 30 bat gazte bildu dira aste honetan gure herrian gazteek demokrazian duten parte-hartzearen gainean eztabaidatzeko. Idoia Bustinduy eibartarrak Bruselan aurrera eraman duen proiektua izan da hau. 'Zure parte-hartzea' esan nahi du YOUP@-k.

**IDOIA BUSTINDUY, Youp@ proiektua:**  
**“Gazteen parte-hartzeaz eztabaidatzen dihardugu”**

**- Zer da YOUP@?**

Youth in Action partidak eman zituzten proiektu europarra egiteko Bruselan, horrela, nik proiektu hau aurkeztu eta partida eskaini zidaten. Nire asmoa zen gazteen artean eztabaida sortzea euren demokrazian duten parte-hartzearen gainean, hau da, ea zergatik gazteek ez duten parte-hartzen demokrazian, hori zergatik gertatzen den, zergatik ez diren ordezkatuak sentitzen, eta abar. Internet belaunaldia bizi dugu orain, beraz, horrek gazteen parte-hartzea demokrazian laguntzeko edo bultzatzeko zein aukera eman ditzakeen aztertzen ere dihardugu, besteak beste.

**- Aste osoa daramazue Eibarren gai hauen gainean eztabaidatzen. Ondorioak atera dituzue?**

Gazteek demokrazian duten parte-hartzearen gainean ondorio negatibo asko eta positibo gutxi atera ditugu. Egunero gai batzuk jorratzen ditugu eta barixakuan (gaur) aterako ditugu ondorio nagusiak. Ikusi behar dugu nolako ordezkatzeko-bideak behar

ditugun gazteok, komunikazioa nolakoa izan behar den eta nolako komunikazio-bideak egon behar diren.

**- Hainbat herrialdetako gazteak batu zarete Eibarren.**

Ipar Irlanda, Ingalaterra, Eslovenia, Espainia eta Euskal Herrikoak. Zergatik? Nolabaiteko nahasketa egin nahi genuen, lurralde bakoitzeko gazteek euren iritzi eta ideiak dituztelako. Era berean, estatu berekoak izan arren, ez dituzte ez arazo, ez kontzeptu berdinak izango Ipar Irlandakoak eta Ingalaterrakoak, ezta Euskal Herriko eta Valentziako batek.

**- Zergatik egin da Eibarren Europa mailako horrelako proiektu bat?**

Eibartarra naizelako eta gustatuko litzaidalako Eibar European gehiago ezagutzea. Gainera, ez da dena hiriburuetan egin behar. Denok ez gara hiriburuetan bizi eta horrelako zerbait Eibar bezalako hiri batean egitea nahi nuen. Gainera, Eibarren kokapena aproposa da Euskal Herriko hiriburuetarara joan ahal izateko eztabaidak izatera.

**Elorri eta Joana**  
Biolin eta Cello bikotea

Ezkontzak, mezak, ekitaldiak...  
zure bizitzako une bereziak musika jartzen diegu

elorrijoana@gmail.com  
Elorri // 666269636  
Joana // 666329728





## Patinete gainean Urkizura

**B**atez ere 1990. hamarkadan arrakasta handia izan zuen patineteak gure gizartean, baina gaur egun ere zale asko ditu. Are gehiago, gora doa skater kopurua azken urteotan. Beraz, moda-modako kirola da skate-a edo patinetearen gainean ibiltzea.

BBK-k egoitza ireki berri du Eibarren eta, ondorioz, herriko ekimenetan parte-hartzeari ekin dio. Horren erakusgarri da 'BBK Skate Eskola Tour 2010'-a gure

herrian izatea zapatuan. Aurreko urte bietan arrakasta handia izan du ekintza honek, eta aurtenguean izango dugu patinatzen ikasi edo, dakienak, teknika hobetzeko.

### Sariak parte-hartzaileentzat

Zapatuan 09.00etatik 11.00etara kokatuko dituzte patinatzeo pistak, eta 11.00etatik 14.00etara skate eskola egongo da monitore bi eta profesional birekin (skate munduan oso

*'BBK Skate Eskola Tour'-a iritsiko da Eibarrera zapatuan. Herriko gazteek patinetearen gainean nola ibili ikasi edo hobetu ahal izango dute, izan ere, skater profesionalak egongo dira irakasle moduan. Urkizuko parkea izango da skate gunea bihar.*

ezagunak, antolatzaileen berbetan). 10 eta 16 urte bitarekoek hartu ahal izango dute parte ekintza honetan, eta aipatu beharra dago Urkizura doan edonork har dezakeela parte.

14.00etatik 16.00etara, bestetik, 14 eta 16 urte bitarteko txanda iritsiko da patin libreaken monitoreen begiradapean. Honen ostean, 16.00etatik 18.00etara, jinkana eta skate txapelketa egingo da; gainera, lehiaketa eta froga ezberdinak egingo dira eta parte-hartzaileek sariak jasoko dituzte. Lehiaketa hauetan edonork lor ditzake sariak, patinete gainean esperientzia dutenek nahiz hasibe-

rriek. Horretarako, Urkizuko parkean kokatuko diren aldapa, modulu eta oztopoak gainditu beharko dituzte skaterrek. Egunarekin amaitzeko, azkenik, desmuntatzea eta garbiketa egingo da 18.00etatik 19.00etara.

Sautsin 2007. urteaz geroztik patinatzeo pistak daudela gogoratu zuen Maria Jose Telleria zinegotziak ekintza honen aurkezpenean. "Zapatuan ikasten dutenek urte osoa praktikatu dezakete kirol hau Sautsin". Zentzu honetan, pista horiek erabiltzen zirela aipatu zuen Telleriak, "eta maila ederra daukate gainera".

# INDARRA zure etorkizunarentzat ARMERIA ESKOLA

- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-  
INFORMATIKA

Izenematea: Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

Isasi, 36 - 20600 Eibar  
Tfno. 943 20 32 44

e-mail: eibar@armeriaeskola.com

[www.armeriaeskola.com](http://www.armeriaeskola.com)

# GREMIOEN GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

## ANTENAK

**BALATZ** C.A.  
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak  
Obra zibila eta eraikuntza  
Obra osoa, giltza eskura  
Gremioen koordinazioa  
Beherehazteko etxeetako  
Etxeetako errehabilitazioa  
Fatxadetako errehabilitazioa



**ELGETA-KALE** (Punto y Aparte-ren ondoan)  
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799  
Faxa. 943 530 392 [ailaproiektuak@hotmail.com](mailto:ailaproiektuak@hotmail.com)

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
[www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK



Proiektu eta erreformak  
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98  
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

## AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota  
guztietako lanak

Ateak - Tarimak  
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 35 55

## ELEKTRIZITATEA



ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -  
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA  
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD  
I B A S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA  
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75  
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

## GARBIKETAK



Otaola Etorbidea, 13  
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94  
[www.escudero.euskalnet.net](http://www.escudero.euskalnet.net)

Aroztegia  Ebanisteria  
 Obra aroztegia



Egiturak, barruko eta kanpoko atekak,  
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,  
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

**CRISTALUX**  
Complejos

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

[cristaluxbe@gmail.com](mailto:cristaluxbe@gmail.com)  
Tfnoa. eta Faxa:  
943 20 65 08  
Mobila:  
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

SUKALDE ALTZARIAK

\*  
AROTZEGIA  
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

**GURIA**

ELEKTRIZITATEA

\* Muntaita eta  
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia  
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27  
[www.electricidadgurria.com](http://www.electricidadgurria.com)

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

**TREJO  
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta  
mantenimendua



- Barne apainketak
- Mantenimendu  
eta automatismoak

**MANTELEC, S.L.**

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44  
Faxa. 943 20 85 48

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK



**IRAIZABAL**  
CONSEJO REGULADOR, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa  
energi berriztagarriak  
proiektuak



**santillán**  
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14  
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18  
info@klimadenda.com [www.klimadenda.com](http://www.klimadenda.com)



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERZATATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

**Arregui y Cortes, C.B.**  
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

## ITURGINTZA

**INDA** iturgintza

UR, GAS eta  
KALEFAKZIO  
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)  
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

## KRISTALAK

**ACHA** Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
ERREKATXU 3<sup>an</sup>

eta faxa: 943 20 39 03



Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**Pintura**  
Goi mailako  
dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO  
Tel. / Faxe: 94 620 03 01  
Mobilak: 607 41 71 81  
666 74 30 98

## SARRAILAGINTZA



**GILTZAK**

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua  
Segurtasun-instalakuntzak  
Sarrailen egokipenak  
Segurtasun kutxak  
Era guzietako giltzen kopiak  
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

**LARRIALDIETARAKO: 943 701 391**  
(08.00etatik 24.00etara)

**Arragueta, 3** [www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)  
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

## PINTURAK



Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kokakazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etzerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24



- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

**PINTURAS ARRATE, S.L.**


ARANE, 13 [parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

## Udako kanpusa antolatu du Ipuruua Gimnasia Erritmikoak

**HAMABOSTALDI BETEA IZAN DU GIMNASIA ERRITMIKOKO IPURUA TALDEAK, JOKOAN IZAN BAITIRA** Espainiako txapelketarako balio zuten Euskadikoak eta eskol mailako Gipuzkoakoak. Azken hauetan, Ane San Martinek, Edurne Prolek, Olaia Golzarrik, Graxi Arregik eta Nahia Bilbaok osatutako infantil mailako taldea probintziako txapela irabazi zuen eta, banakakoan, Ane San Martinek zilarrezko domina irabazi zuen eta Miren Bastida alebinak brontzezkoa. Federatuen arloan, Ipuruako lau izan dira Euskadikoetan Zaragozan jokatu den Espainiako txapelketarako txartela lortu dutenak: Carmen Gamundi, Olatz Ibaibarriaga eta Olatz Laskurain seniorretan eta Maria Fernández infantiletan.

### Gimnasia topaketak

Gimnasia erritmikako IV. topaketak hasi zituen Ipuruak So-



raluzen, Urretxu, Markina, Mutriku, Soraluze eta Eibarko 150 bat gimnastekin. Laugarren urtea da topaketa hauek egiten direla, kirolaren ezaugarriak jakitera emateko asmoarekin eta hurrengo jardunaldia Mutrikun izango da ekainaren 6an.

Bestalde, badago ekimen berriak eta hori astebeteko Udako Kanpusa da. Ipuruak talde bi antolatu ditu: ekainaren 28tik uztailaren 2ra bata eta uztailaren 5etik 9ra arte bestea. Gimnasia erritmikoan hasteko entrenamendu zehatzekin batera, ballet, aquagym, patinajea eta beste aktibitateak egingo dituzte. Plaza mugatuak dira eta interesatuek kiroldegira jo dezakete edo gimnasiaipuru@hotmail.com helbidera.



Makurtuta biserekin, Zigor Uriarte (ezkerrean) eta Aitor Molano (eskuman).

## Lau eibartar Soplaoko ultrafondoko mendi lasterketan

**AURREKO ZAPATUAN "LOS 10.000 DEL SOPLAO" ULTRAFONDOKO MENDI LASTERKETA JOKATU ZEN**, Cabezón de la Sal-en hasi eta Sajako naturguneetik pasatuz. Gure herriko sei ordezkari izan ziren parte hartzen: hiruk 125 kilometroak bete zituzten eta laugarrenak (Xabier Bastarrikak) 46 kilometroko mendi-maratoian hartu zuen parte. Zigor Uriartek 6. postuan amaitu zuen (18 ordu eta 55 minutu), Edu Uribek 20.ean (25h 15') eta Aitor Molano 26.ean (28h 10').



## Herriko igerilari gazteenak bikain Gipuzkoako txapelketan

**AZPEITIAN ASTEBURUAN JOKATUTAKO GIPUZKOAKO ALEBIN (ZAPATUAN) ETA ESKOLA MAILAKO (DOMEKAN) TXAPELKETETAN**, Urbat-Urkotronik-eko ordezkari-tza zabala izan zen, emaitza onekin. Zapatuan Ander Salaberria, Ander Telleria, Ane Kruzelaegi eta Jorge Ezenarro nabarmendu ziren. Domekan, bestalde, asko sailkatu ziren sei lehe-

nen artean eta, aipagarrienen artean, Ane Lópezek 200 libre erako proba irabazi zuen eta 3.a izan zen 100ekoan, Ander Izagurrek 100ekoa irabazi zuen eta 2. sailkatu zen 200ekoan, Egoitz Blanco 2.a izan zen braza estiloko 200 metrotan eta Iratxe Moyak postu bera eskuratu zuen distantzia berean. Asteburuan Euskal herriko txapelketa jokatuko da Barakaldon.



## Eibarko hiru gidari Aiako III. auto igoeran

**MENDIKO EUSKAL TXAPELKETARAKO BALIAGARRIA DEN DENBORALDIKO HIRUGARREN PROBA JOKATUKO DA BIHAR AIAN**. Han izango dira Escudería Eibarko hiru ordezkari: Joseba García (Renault 5 GT Turbo), Iban Tarsicio (Ford Escort Cosworth) eta Josemi Gabilondo (Renault Alpine A110). Zaila izango dute Aitor Zabaleta eta Angela Vilariñoren barketei aurre egitea.

## Ferreiro Euskadiko azpitxapeldun

**KLUB DEPORTIBOKO SQUASH-LARIAK EZIN IZAN ZUEN GASTEIZEN JOKATUTAKO TXAPELA JANTZI**, finalean amore eman behar izan baitzuen Mundaiz taldeko ordezkaria Jose Luis Unanueren aurrean. Unanuek irabazi zuen lehenengo jokoan, Alberto Ferreirok hurrengo biak eta, nekearen ondorioz, azken biak ihes egin zioten eibartarrari. Sergio Salgado, bestalde, 5.a izan zen eta Jon Losada aurreko fasean kanporatu zuten.





## Ontinyent-Eibar, domekan 19.00etan

**EIBAR KE-K, KOSTATA IZAN BAZEN ERE, ALCOYANO GAIN-DITU ZUEN IPURUAN** (2-0, Sutilen golekin) eta igoera faseko bigarren kanporaketa Ontinyent-en aurrean jokatu beharko du. Domekan, ETBk emango duen partiduan, Valentziako herri horretan jokatuko dute Manixen mutilek, 19.00etan, eta itzulerako partidua hurrengo domekan izango da Ipuruan. Ontiyentek Guadalajara kaleratu zuen aurreko kanporaketan eta oso gol gutxi jaso ditu etxean.

## Hiru pilota partidu gaur Astelenan

**UDABERRI TORNEOAREN FINAL HAMASEIRENAK JO-KOAN IZANGO DIRA** gaur Astelenan, 20.15etan hasita. Lehenengoan, Deportiboko talde-




kideen arteko lehia izango da: Egaña Unamunzagaren aurka; jarraian, Etxanizek Tolosako Biaiarekin neurtuko ditu indarrak; eta, azkenik, Karmona Bergarako Irizarren aurka arituko da. Bestalde, Deba Arroko torneoko finalerdietako itzulerako partiduan, Agirresarobek eta Erik-ek 19-22 galdu zuten Etxabe eta Gallastegi bergararekin eta, modu horretan, finala jokatzeke aukera galdu zuten.

## Ate irekien 3. jardunaldia waterpoloan

**BIHAR EGINGO DA JARDUNALDI HORI ORBEA KIROLDE-GIAN, HURRENGO DENBORALDIRAKO TALDEAK OSATZEN** joateko asmoz. Jardunaldiak 14.00etatik 16.00ak arte iraungo du. Orain arte, 7 apuntatu dira infantil (mistoa) talderako, 9 kadetetan (mistoa ere) eta 6 jubeniletan; berritasun moduan, bost neskek izena eman dute senior taldea osatzeko gozgoz. Interesatuta dauden beste guztiek 688 610 627 zenbakira deitu dezakete edo waterpolo@urbat.es helbidera jo.

## Deba-Itziar triatloia domekan

**EUSKADIKO TRIATLOI ESPRINT TXAPELKETA IZANGO DA JOKOAN II.** Deba-Itziar triatloi proban. Deba-Itziar Extren Kirol Taldeak antolatzen duen proba 12.00etan hasiko da eta lasterketaren muina, boxeak eta helmuga Debako hondartzara aurrean kokatuko dira. Parte hartzaileek lehenengo igerian jardungo dute 750 metroko distantzian, jarraian 24 kilometro eta erdi egingo dituzte bizikletan, 5 kilometroko oinezko lasterketarekin amaitzeko.



## Finalerdiak Kopako foball-zaletuan

**BIHAR GOIZEAN JOKATUKO DIRA SAILKATUTAKO LAUREN ARTEKO NORGEHIAGOKAK UNBEN.** 09.00etan hasita, Tecnofikeyk eta Alkidebak neurtuko dituzte indarrak; eta, 10.30etan hasita, JoserAuto Sport-ek eta Esmorgak. Horko irabazleen arteko lehiari erabakiko da txapelketa zein izango den.

## Helbidea

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako dorreetako**  
**1. solairua**

**EIBAR**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ **943 12 02 00** ☎ **943 12 02 04**

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
<b>BERRIA:</b> Foto-depilazio Unitatea	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

## Amaia oroitzuz

*Amaia maite  
Atzo goizean ikusi zintudan,  
Untzagako plazan dantzan  
Zure lagunekin jira eta jiran....  
Ai! Amaia maite*

*Amaia maite  
Zure begirada poliitt alaia  
Zure jantzi dotoria  
Zure gorputz lirain, zure oiñ ariñak  
Ai! Amaia maite*

*Amaia maite  
Guztion lagun ta alaitasuna  
Gure bihotzaren poza  
Gure dantzari ta irakasle fiña  
Ai! Amaia maite*

*Amaia maite  
Gogoan dot nola ibiltzen giñan  
Herriz herri dantzalditan  
Giro jatorrian, bizitza sentitzen  
Ai! Amaia maite*


*Eskerrik asko  
erreza izan da zu maitatzia  
Eziña da agurtzia  
Gure nahixa oiñ gero arte esatia  
Ai! Amaia maite*

*Dantzako lagunek*

Urkizutik Untzagaraino, giza-kataia osatu eben edade guztietako herritarrak batak bestiarri emonda jua zan "euskeriaren gantxilla" bigarrenez, oiñ urte biko esperientziari jarraituta. Eguraldi zoragarria lagun, eskurik esku ibilli zan Urkizuko iturrixan ur freskuarekin betetako gantxilla, Untzagaraino aillergau arte. Juan Antonio Mogel Ikastolako Izaskun Maza andereñuak ekin zetsan ibilbidiari, gurian ikastolia sortu zala aurten 50 urte bete dirala ospatzeko. "Tantanez tantan, Eibarren euskeraz bizi!" lemari jarraituta herriko euskalgintzan diharduen alkartiak antolatutako ekitaldixak herriko taldietako ordezkari mordua batzia lortu eban eta, jakiña, iñolako taldeko kide izan barik be, euskeriaren festarekin bat egin nahi izan eben beste herritar askok be hartu eben parte. Gantxilla Untzagara aillergau zanian, Ane Sarasketak Egunkariako bihargiñen izenian irakorritako idatzixarekin agurtu zan ekitaldixa. Hori bai, etxera jua aurretik, famelixa-erretratu politta etara eben han batutakuak.



## TANTANEZ TANTAN, Eibar atzera be euskerarekin blai



# Kafe bat, momentu bat

**ARZAK JATETXEAN** lagun birendako afari biko zozketan parte hartzeko baldintza bakarra da kafe baten inguruan bizi izan duzun momentu berezietako bat **ekainaren 15a baino lehen** gurekin partekatzea. Parte hartzeko txartelak hartutako kafe bakoitzarekin emango zaizkizue honako establezimenduetan:

**Ametza**  
**Artola Jatetxea**  
**Azitain Jatetxea**  
**Birjiñape**  
**Bodega Urki**  
**Buenos Aires**  
**Casa Galicia**  
**Caserio**  
**Casino Ibarcurutze**  
**Casino**  
**Depor**  
**Diana**  
**Eker**  
**Erreka Jatetxea**  
**Erromes**  
**Etorki**  
**Gurbil**  
**Gure Kaiola**  
**Guridi**  
**Ixua Jatetxea**  
**Jubilatuak Untzaga**  
**Jubilatuak Urkizu**  
**Kaixo**  
**Katu-Kale**  
**Kerizpe**  
**Kiroljokoa**  
**Koskor**  
**Kultu**  
**Lanús**  
**Matarife**  
**Moxo**  
**O'Jays**  
**Paulaner**  
**Poli**  
**Rioja**  
**San Juan**  
**Tas-Tas**  
**Terraza**  
**Trinkete**  
**Tunelpe**  
**Txirula**  
**Vila**  
**Vivaldi**  
**Xania**  
**Zelai-Bide**

*Kafe bat ez da edari bat bakarrik. Askoz gehiago da. Kafe baten inguruan, sarri, momentu bereziak bizitzen ditugu. Zure lagun onenari maitemindu zinela kontatu zenion eguna. Azkenean zure bikotearekin etxea erosi zenuela aitortu eta eurengana bazkaltzera bakarrik domeketan joango zinela esateko gurasoekin geratu zinen eguna. Realak bere lehenengo liga irabazteko El Molinón-en Zamorak sartutako gola ospatzeko eman zenuen jautzia.*

*Kafea solasaldia da. Berrito topo egiteak. Ezusteak. Momentu bereziak, azken batean. Horregatik Urkotronik-en kanpaina dibertigarria abiatu dugu, "Kafe bat, momentu bat" izenarekin. Momentu berezi horiek gogoratzea nahi dugu, irribarre bat aterarazi eta, horrez gain, jatetxe oso berezi batean lagun birendako afaria irabazteko aukera eman nahi dizugu.*



**urkotronik**

Ozalirga

Vending

Momentu bat jokatzen

[www.urkotronik.com](http://www.urkotronik.com) 902 127 137 Eibar

Euskal Herriko bizi-zientzietako ikerlariak Markeskuan batu dira, UEU-k antolatuta 'Bizi-zientzietako ikertzaileen I. Topaketa'n. Euren lerro zientifikoak aurkeztu, harremanak sendotu eta euskerazko ikerketa eta ekoizpena bultzatzeko asmoarekin.

**ANGEL BIDAURAZAGA  
EKAITZ AGIRREGOITIA,**  
ikerlariak:

## “Euskeraz ikertzen dugu”

**- Zertaz jardungo duzue Bizi-zientzietako ikertzaileen I. Topaketan?**


Gure lerro zientifikoak garatuko ditugu euskeraz bertan bilduko garenen artean. Horrela, hiru bloketan banatuko dugu jardunaldia: Biologia eta neurozientziak, aplikazio teknologiko berriak eta osasuna. Gai zabalak dira eta euren artean ezberdinak. Jende askorentzat gai hauen gainean euskeraz jarduteko lehen aldia izango da. Bestetik, amaieran batzarra eginez ondorio batzuk ateratzea da gure asmoa, nahiz eta antolaketan ondorio batzuk atera ditugun jada.

**- Bizi-zientzietan adituak direnentzako da topaketa?**

Bai, baina bertatik aterako ditugun ondorioak gizarteratzea da gure asmoa. Ikerketa txikitxo bat egingo dugu ea laborategian zein hizkuntza erabiltzen duten, euskera erabiltzen duten ala ez... parte-hartzaileekin eztabaidatuko dugu hori eta ondoren gizarteari igorri. Gizarteari aditzera eman nahi diogu euskeraz ikertzea posible dela eta euskeraz ikertzen dugula, hau da, gure jarduera normala euskeraz egiten dugula; dibulgazioa euskeraz egiten dugula, baina baita horrelako foro espezializatuak ere.

**- Nolako jendea bilduko da topaketan?**

Aipatu behar da hona etorriko diren taldeak erreferenteak direla, ez direla lau hasiberri. Hasiberriak badaude, baina nazioartean ospe handia daukatenak ere eta euren jarduera



euskeraz egiten dutenak gainera. Topaketak balio izango du ikusteko ez gairela euskeraz egiten dugun ikerlari bakarrak, eta honek lagunduko du bilduko garenen artean euskeraz egiten eta hori interesgarria da guretzako, baina baita gizarterentzat ere, ikusten delako ikerkuntza euskeraz egiten dugula. Bestalde, horrelako topaketetan sortzen diren sinergiak aprobetxatu nahi ditugu. Azkenean talde bat mugatuta egon daiteke, nik jakin ditzakedalako hiru teknika, baina beste batek beste hiru jakin ditzake, horrela, denon artean lan egin eta zerbait gehiago egin dezakegu.

**- Etorkizunean jarraipena izango du topaketa honek?**

Euskeraz ikertzen gabiltzaren artean sinergiak sortu eta ikerketez eztabaidatu ostean ondorioak aterako ditugu lehen aipatu bezala, ondoren gizarteratuko direnak. Interes antzekoak dituen jendea elkartuko denez topaketan, euren artean elkarlana sortu daiteke, dena euskeraz. Horrek jauzi kualitatiboa suposatzen du.

**- Euskerak nolako presentzia dauka ikerkuntzan?**

Euskera txokoratuta dagoela ematen du, horrela, gizarteari erakutsi nahi diogu euskera ikerkuntzetan ere erabiltzen dela, ez dela soilik zerbait folklorikoa.

**Elkarrizketa osoa [www.etakitto.com-en](http://www.etakitto.com-en)**




“Su garrekin dantzan” San Juan kartel irabazlea eta “Klink ein, klonk barik” jaietan alkohol larregi edatearen kontra aukeratutako pegatina.

## Su garrekin dantzan aurtengo sanjuanetan

**BARIXAKUAN EMAN ZITUZTEN EZAGUTZERA UDALAK ANTOLATUTAKO LEHIAKETEN IRABAZLEEN IZENAK:**

San Juan 2010 Eibarren kartel-lehiaketako lehenengo saria Nerea Larrañaga Reboredorentzat izan da, “Su garrekin dantzan” izenburuko lanarekin; umeen mailan, 11 eta 14 urte bitartekoen artean, Jone Ayarza Astigarragarena (“Eibar sustan”) aukeratu du epaimahaiak eta 10 urtera artekoen atalean, Eneko Gisasola Elkoro-

barrutiaren “Sua” izenburuko lana izan da onena. Bestalde, jaietan alkohol larregi edatearen kontrako pegatina aukeratzeko lehiaketako irabazlea 19 urteko Ibai Lazkano Iturbe izan da, “Klink ein, klonk barik” lanarekin. Eta 2010-2111 Eskola Agendarako argazki lehiaketan, bilduma onena Miriam Domínguez Gómez-en “Gure eskubideak” izenburukoa izan da; argazki solteei emandako saria, berriz, Iker Laka Baerandiberriz, Eneko Gisasola Elkoro-



## Pozalaguara txangoa

**ARRATE KULTUR ELKARTEAK EKAINAREN 12RAKO (ZAPATUA) POZALAGUAKO KOPA IKUSTERA JOATEKO TXANGOA**

antolatuta du. Autobusa goizeko 10.00etan irtengo da, Ego Gainetik. Antolatzaileren berbetan, “Pozalaguako koba paregabe eta bereziztat jotzen dute, barruan dituen estalaktita eszentrikoengatik. Estalaktitek marrazki bitxiak osatzen dituzte, norabide guztietan nahastuz. Barruan lakua egon zen sasoi batean, baina gaur egun lehor dago. Hala ere, ikustea merezi duen koba da, 1957an kasualitate hutsez aurkitu zuten eta, berritze prozesu baten ondoren, jendeak ikusi eta bere aberastasuna miresteko moduan prestatu zuten inguru guztia”. Irteeraren prezioa, bazkaria barne, 34 eurokoa da bazkide ez direnentzat (32 eurokoa bazkideentzat). Izena emateko 678351685 telefono zenbakira deitu daiteke (Leire).

## Antzezlan bi datorren astean

**MAIATZEAN ABIATUTAKO DEBABARRENEKO ESKOLARTEKO XXVI. ANTZERKI ERAKUSKETAK** bere egitarauari jarraituko dio ekainean ere: martitzenean Ados Teatroataldeak "Einstein" antzezlanatularatuko du Hezkuntza Esparruan, 15.00etatik aurrera. Ordubeteko iraupena duen lana 5 urtetik aurrerakoentzat dago pentsatuta. Garbi Losadak eta Jose Antonio Vitoria Valentziako Arte eta Zientzia Museorako 2005-

ean prestatutako lana antzerki interaktibo gisa sortu zuten, baina, bost urte geroago, ikuskizuna berrabiarazi egin dute, antzokietarako bertsio berria eginez (italiar erara).

Eta ekainaren 3an Uroc Teatro Madrilgo konpainiak "El niño Colchón" tularatuko du, Olga Margalloren zuzendaritzapean. Zuzendariarekin batera Antonio Muñoz protagonista duen lana 6 ur-



tetik aurrerako umeentzat egokia da eta hauxe ere 15.00-etan hasiko da, Hekuntza Esparruan.



## Eraikinen maketa erakusketa

**MANUEL ZABALA EIBARTARRAK EGINDAKO EIBARKO ERAIKINEN MAKETEN ERAKUSKETA UZTAILAREN 23-RA ARTE** egongo da ikusgai Portalean, Museoaren sarreran. Besteak beste Eibarko honako eraikinen maketak ikus daitezke: udaletxea, Otaola erdi baserria, Indianokua jauregia, Vildosolaren txaleta, Aldatze kaleko 7a (Zabalaren jaiotetxea), Estaziñoko eraikina, haren aldamenean dagoena (Arbitrioren etxea), Probaderua, Markeskua

## laburrak

### Kantabriako Etxea

Uztailaren 10erako Soplakobazuloetara txangoa antolatu Kantabriako Etxeak. Interesatuek ekainaren 22a baino lehen eman beharko dute izena, Jardinieta kalean dagoen Kantabriako Etxean.

### Zeramika Eskola

Akainaren 3an, 19.00etan zabalduko da Portaleko erakusketa aretoan Margo, Marrazki eta Zeramika Udalen Eskolen ikasturte amaierako erakusketa. Ekainaren 20ra arte egongo da bisitatzeko aukera, ohiko ordutegian. Bestalde, Dibujo eta Zeramika Udalen Eskoletan datorren ikasturterako izena-emateko epea ekainaren 1ean zabalduko da. Informazio gehiagorako Pegoran edo Portalean galdetu.

**A eta D  
ereduak**



**JANGELA  
ZERBITZUA**

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR  
Tel. 943 20 84 44 / Faxe. 943 20 31 96

**LANERAKO ETA  
ETENGABEKO PRESTAKUNTZA**

**KALITATE PLANA**

**"LEONARDO"  
PROGRAMA EUROPARRA**

**LANGAI**

**URRATS BAT  
LAN PROIEKTUAK**

**EIBAR**

**ERMUA**

uni@iesunibhi.com / www.iesunibhi.com

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA  
Tel. 943 17 62 57 / Faxe. 943 17 64 50

**Aurrematrikula: maiatzaren 31tik ekainaren 11ra arte**

**EIBAR**

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- ◆ Administrazio eta Finantzak
- ◆ Nazioarteko Merkataritza
- ◆ Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- ◆ Administrazio Kudeaketa
- ◆ Merkataritza

**ERMUA**

- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena (D EREDUA)
- ◆ Informatika Sistemen Administrazioa

## Jose Zugasti herriko eskultorearen erakusketa

**ATZO ARRATSALDEAN ZABALDU ZUTEN ALFA ARTEN (TORREKUA, 3) JOSE ZUGASTI ESKULTOREAK EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA**, "Eskultura Ezagutu" ekimenari jarraituta. Erakusketa bisitatzeko ordutegia honakoa da: astelehenetik barixakura, 09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 18.00etara (barixaku arratsaldetan itxita).

Jose Zugasti eskulturgilea Eibarren jaio zen 1952an eta Madrilera San Fernando Arte Ederretako Fakultatean eskuratu zuen lizentziatura. Une

honetan Euskal Herriko eskultorerik ezagunetarikoa da, curriculum benetan luzearekin, eta Arcon urtero hartzen du parte. Bere ibilbidean hainbat sari jaso ditu (Bilbao Ria 2000, Euskal Herriko Bide Ingeniarrien Elkargoarena...) eta bere lanetako asko eta asko bilduma pribatuetan zein publikoetan daude (Bilboko Arte Ederren Museoan, Artium-en, Bilboko Udalaren esku, Agurainen, La Caixa-k erosita...). Eibarren ikusgai ipinitako beharrek bere obraren zati txiki bat baino ez dute osatzen.



## Abesbatzen kontzentrazioa ekainean

**KALEETAN KANTUZ-EKO ORDEZKARIEK AUERRERATU DIGUTENEZ, EKAINAREN 12AN ABESBATZEN KONTZENTRAZIOA EGINGO DA EIBARREN.** Eguerdiekin Untzagako jubilatuen etxean harrera egin ondoren, batutako abesbatzek kalejira egingo dute herriko kaleetan. Ondoren, Untzagan denek elkarrekin abestu eta gero, Astelena frontoian bazkaria egingo da (15 euro). Jardunaldia 18.00ak aldera agurtuko dute, Untzagan. Bazkarirako txartelak Kaleetan Kantuz-erako entseguetan ipiniko dituzte salgai eta, bestela, Untzagako jubilatuekin erosteko aukera zango da, martitzen eta eguenetan, 12.00etatik 13.00etara.



Martitzenean izandako aktuzioaren une bat. / EKHI BELAR

## Umeen Bertso Jaialdi arrakastatsuak

**MARTITZENEAN ETA ATZO ARRATSALDEAN COLISEOAK HARTUTAKO UMEEN BERTSO JAIALDIEK JENDE UGARI ERAKARRI ZUEN** berri ere. Lehenengo saioan La Salle Isasi, Arrateko Andra Mari eta Amañako ikastetxeetako ikasleek jardun zuten bertsoetan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako 154 ikasle eta atzo, berri, Juan Antonio Mogel, Urkizu eta Aldatzeko talde-

en txanda izan zen. Laugarren ikasturtez jarraian, Bertsozale Elkarteak hainbat herritako ikastetxeetan bertsozaleen nondik norakoak azaltzen dihardu, horretarako prestatutako klaseak emanda. Udalak eta parte hartzea erabakitzen duten ikastetxeek erdibana ordaintzen dituzte klaseak eta ikasturtean ikasitakoaren emaitzak aste honetako jaialdi berritan ikusteko aukera izan da.




## Ikastolako olinpiada txikiak

**BIHAR, 11.00-ETATIK AUERRERA, JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLAKO HAUR HEZKUNTZAKO UMEEK** Txikien Olinpiada Handian parte hartuko dute, Euskaraz Bizi eta Argitxo iratxoaren inguruan antolatutako jaialdian. Txikien (urte bikoek) motorretan lasterketak egingo dituzte eta piskat nagusiagoak direnak, berri, kaskara-biltzen, zirkuitoan, txinga-eroaten eta beste hain-


bat probatan euren trebezia erakusteko aukera izango dute, Iturburun 13.30ak arte ospatuko den euskera eta kirolaren jaian. Tartean, gurasoek martxan izango duten tabernan zerbait jan eta edateko aukerarik ez da faltako eta probak amaitzean domina-banaketa egingo dute. Ekainaren 5ean, berri, nagusien txanda ailegatu da, XIV. Kirola Euskaraz Bizi jaialdiarekin batera.

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, XABAT, atzo urtebete egin zeban gure korrikalarixak-eta. Etzeko danon partez.




Zorionak, ALEX, hillaen 25ian urtia bete dozulako. Famelixaren partez.




Zorionak, UR Elizondo Leizabe, bixar urtia beteko dozu-eta. Etzeko guztion partez.




Zorionak, LAIA, eguaztenian urtebete egin zenduan-eta. Haizea, amama eta famelixaren partez.




Zorionak, GAIZKA Gallastegi, 25ian zazpi urte egin zenduaz-eta. Aitta, ama, Unai eta Izarren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, AMAIA, printzesa, gaur urte bi betetzen dozuz-eta. Laztan handi bat aitatxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, TIA NANE, bixar urtiak beteko dozuzelako. Muxu handi bat famelixaren eta batez be, Ekainen partez.




Zorionak, EKAIN eta DANEL, atzo zuen urtebetetzia izan zalako. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, NAROA Garzo, ekaiñaren 1ian hamar urte egingo dozuz-eta. Resu, Eduardo eta Adrianen partez.




Zorionak, AIMAR, astelehenian urtia beteko dozu-eta. Muxua aitatxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, IKER, astelehenian hamar urte egingo dozuzelako. Aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE (hillaen 13an) eta JOSU (26xan), urtiak bete dozuz-eta. Muxu handi bana danon partez.



Zorionak, KEPA, bixar urte bi beteko dozuz-eta. Ondo pasau eguna. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, EGOITZ, hillaen 26xan urte bi egin zenduaz-eta. Muxu handi bat

## zinea Coliseoan

**28an, 20.30etan; 29an, 19.45 / 22.30etan; 30ean, 20.00etan; 31n, 20.30etan.**

### "Que se mueran los feos"


Zuzendaria: Nacho Velilla  
Aktoreak: Javier Cámara, Carmen Machi, Hugo Silva, Tristan Ulloa...



Eliseo zatarra eta herrera da; Nati zatarra eta bular bat falta zaio. Ez batak ez besteak ez dute benetako maitasuna ezagutzen. Eliseok txarrena espero du; Natik onena etorriko zaiola uzte. Eliseoren ama hiltzean, bideak gurutzatuko dira.

### "Prince of Persia"

Zuzendaria: Mike Newell  
Aktoreak: Gemma Arterton, Jake Gyllenhaal, Alfred Molina, Ben Kingsley...



Dastan printzeak eta Tamina ederrak euren arteko indarrak batu beharko dituzte makur batek Denboraren Hareak lortu ez ditzan; azken hauek denbora inbertitzeko jainkoek emandako oparia dira eta lortzen dituenak munduan aginduko du.


### "80 egunean"

Zuzendaria: J.M. Goenaga  
Aktoreak: J. Ramon Argoitia, Mariasun Pagoaga, Itziar Aizpuru, Ane Gabarain...



Axun 70 urtetik gorako emakumea da, egunero ospitalera doana senide bat zaintzera. Maite aspaldiko lagunarekin egingo du topo eta harekin bitzako momentuak errepatatuko dituzte. Axun laster hasiko da kezkatzen Maiterenganako sentimenduz.

Zorionak, EKHI, hiru urte eta mundua zure zain. Disfrutau!!!



## JAIOTAKOAK

- Janire Richard Fontaneda. 2010-V-19.
- Malak Tissoudali. 2010-V-19.
- Joel Gómez Babarro. 2010-V-21.
- Itziar Eiriz. 2010-V-22.

## HILDAKOAK

- Maximo Rivaherrera Bilbao. 64 urte. 2010-V-14.
- Victorina Plaza Plaza. 94 urte. 2010-V-18.
- Angel Larraza Ugarteburu. 62 urte. 2010-V-21.
- Pablo Astigarraga Carral. 89 urte. 2010-V-22.
- Eloisa Zubizarreta Atristain. 88 urte. 2010-V-25.

## horoskopoa

**ARIES**

Zorrak kitatzea tokatzen zaizu. Iraganeko kontuak atzean laga eta zerotik hasiko zara. Zuk egin beharko duzu bidea.

**TAURUS**

Kokoteraino zaude telebistan entzuten dituzun gauzekin, baina ezin duzu gorrarena egin. Zure eskuan dagoena egin beharko duzu, nahitaez.

**GEMINI**

Hamaika ikusteko jaiok! Ezin sinestuta ibiliko zara, nola gerta daiteke halako gauzarik? Argi dago zuk horrelakorik egingo ez duzula.

**CANCER**

Barrenean denbora askoan zenuen hori bota eta erabat lasai geratuko zara. Une egokia bilatzen saiatu zara, baina agian denbora gehiegi pasa da.

**LEO**

Zure antza handia duen norbait ikusi eta ispilu baten aurrean zaudela pentsatuko duzu. Zeinen txikia da mundua. Lasai, ez da zure klon bat.

**VIRGO**

Badakizu bera zure alboan egongo dela edozer gauzatarako, baina noizean behin ez dago gaizki eskerrak ematea.

**LIBRA**

Egoera bitxia biziko duzu domekan, nahiko deserosoa, baina ederki egingo duzu barre ondoren. Gorri-gorri jarriko zara.

**SCORPIUS**

Euskal Jaia oso gustokoa duzu eta aurten ere ederki pasatuko duzu dantzan, kantuan eta dena delakoan. Hori bai, ajea demasa izango da.

**SAGITTARIUS**

Buruan gauza gehiegi dituzu eta bakoitza bere lekuan ipintzen saiatuko zara. Dena ordenatuta, arnasa hartu eta aurrera egingo duzu.

**CAPRICORNIUS**

Gauza txar guztiak zuri gertatzen zaizkizula pentsatzen duzu, baina ezerrenatik kezkatzen zara. Tontokeriak direla konturatuko zara.

**AQUARIUS**

Zure lekuan egotea gustatuko litzaioke jende askorik eta hortaz ohartuko zara. Horrek duzun guztia baloratzen lagunduko ditu.

**PISCIS**

Ezin ukatuko duzun eskaintza jasoko duzu. Bueltak emango dizkiozu buruari, baina onartuko duzu. Hala ere, ez zara oso gustura geratuko.


## Barixakua 28

**EGOIZIA**

**19.30.-** "Biltzen", Aldatzeko boluntarioen ikuskizuna (poesia, dantza, musika eta irudiak). Egoaziaren 10. urteurrenaren barruan. Portalean.

**EUSKAL JAIA**

**17.00.-** Kalian Jolasian, 5-8 urte bitarteko umeentzat, zirko-giroan. Untzagan. Ondoren, kalejira.  
**23.00.-** Gose taldearen kontzertua. Untzagan.



## Zapatua 29

**EUSKAL JAIA**

**10.00/14.00.-** Artisau eta baserritarren azoka. Toribio Etxebarrian.  
**12.00.-** Herri-kirolak eta bertsolariak.  
**13.00.-** Eskolen Arteko IV. Herri-Kirol Lehiaketa. Talo postua goiz osoan.  
**18.30.-** Bertso-triki herri parranda (Hankamotxak + Eibarko Trikitilariak). Untzagatik Depor, Monteka eta Maixa tabernetara.  
**22.00.-** Kantu afaria. Untzagako karpan.  
**23.00.-** Kantuak eta erromeria, Jainaga eta Narbaizarekin.

**EUSKARAZ BIZI**

**11.00.-** Txikien Olinpiada Handia (HH). Iturburuan.

**BBK SKATE ESKOLA TOUR**

**11.00/14.00.-** Skate eskola, 10 eta 16 urte bitarteko gazteentzat. Urkizun.  
**16.00/18.00.-** Txapelketa + Jinkana skater. Urkizun.


## Domeka 30

**IBILDIA**

**09.00.-** Ibilaldia Bizkaiko Ikastolen aldeko jaialdira, Bermeora joateko autobusaren irteera, Ego Gaietik (bueltakoa, 19.00etan).

**EUSKAL JAIA**


**12.00.-** Euskal Jaiko kalejiraren hasiera. Urkizun.  
**12.30.-** Ezpalak dantza ikuskizuna. Untzagan.  
**17.00.-** Erromeria, Aiko taldearekin. Untzagan.  
**19.00.-** Larrain-dantza popularra. Untzagan.  
**20.00.-** Larrain-dantza popularra. Deportibo parean.



## Martitzena 1

**ESKOLARTEKO ANTZERKIA**

**15.00.-** "Einstein" (Ados Teatrea, Gipuzkoa). Hezkuntza Esparruan.



## Eguaztena 2

**IKASTEN**

**10.00.-** "Tocando el cielo", Josu Garate arkitektuaren hitzaldia (sarrera libre). EPAn (Isasi, 39).

**DANBORRADA**

**19.00.-** Umeen danborradarako entseguak.  
**20.00.-** Helduen danborradarako entseguak (Bittor Sarasketa, 7an).



## Eguena 3

**ESKOLARTEKO ANTZERKIA**

**15.00.-** "El niño colchón" (Uroc Teatro, Madril). Hezkuntza Esparruan.

**ERAKUSKETA**


**19.00.-** Margo, Marrazki eta Zeramika Udal Eskolen erakusketaren inaugurazioa. Portalean.

**JARDUNALDIA**


**19.00.-** "Nork ordainduko du krisia?" jardunaldia: "Osasun-sistemako murrizketak" hitzaldia, Juan Sánchez-Vallejoren eskutik. Portalean (ikastaro gelan).

**DANTZA**

**20.30.-** Biraka dantza taldearen emanaldia. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.







**erakusketak**

- Maiatzaren 30era arte  
**VIRGINIA ARAKISTAIN** en argazki erakusketa. *Portalean.*
- CONF. ESPAÑ. DE FOTOGRAFIA** ren "Fondos Fotográficos" argazki erakusketa. *Portalean.*
- JUAN MIGUEL ALBA MOLINA** ren argazki erakusketa. *Topalekuan.*
- 29 ARGIZAIOLA LEHIAKETA** argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- KLUB DEPORTIBO** ko Argazki Taldearen lanak. *El Ambigú, Portalea taberna eta Untzagako Jubilatua.*
- Maiatzaren 27tik aurrera  
**JOSE ZUGASTI** ren eskultura erakusketa. *Alfa Arten.*
- Ekainaren 1etik 30era  
**GURUTZE AGIRRE** ren "Mugimendua" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Uztailaren 23ra arte  
**"ARTE Y ARQUITECTURA EN EIBAR"** maketa erakusketa. *Armaztagaren Museoa.*

**ikastaroak**

- **UEUko Udako Ikastaroak.**  
Matrikula: *Ekainaren 20ra* arte. Informazioa: [www.ueu.org](http://www.ueu.org), 943821426 telefonoan.
- **Oporrak Afariketean.**  
Norentzat: LH-ko 1.mailatik 6. mailara bitartekoentzat. Noiz: Txanda bi (ekainaren 28tik uztailaren 9ra, uztailaren 5etik 16ra).
- **Udan Jolasetan.**  
Norentzat: 5 urteko haurrentzat (2004an jaiotakoak). Noiz: Ekainaren 28tik uztailaren 9ra, 10.00etatik 12.00etara.

**farmaziak**

- 28, barixakua**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 29, zapatua**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 30, domeka**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 31, astelehena**  
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)  
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
- 1, martitzena**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 2, eguaztena**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 3, eguena**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 4, barixakua**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

**telefono jakingarriak**

- SOS delak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.50, 09.00 eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 12.30, 13.30, 15.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 15.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdi. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdi eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

SUDOKUA

	5			9	6	4
		4	3	8		9
	6		2		7	
5	1				9	3
	3		8		2	
	3		5	9	8	
4		8	7			6

**DENBORAPASAK**

9	3	4	1	0	2	6	5	7
7	8	5	9	3	4	8	1	2
2	1	8	7	8	5	4	9	3
3	6	2	4	1	7	9	8	6
8	4	7	3	9	6	1	2	5
6	9	1	2	5	8	3	7	4
4	8	6	5	2	1	7	3	9
1	2	9	8	7	9	5	4	8
5	7	3	8	4	9	2	6	1

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Eibarko erdigunean. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. Dena kanpora. Sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 629-533695.
- Txaltxa-Zelai ondoan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. Kalefakzioa. Guztiz jantzita. Fatxada berriztuta eta bista onak. Prezioa adosteko. Tel. 675-700864.
- Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldia despentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.
- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Santaiñes-Ipuruan. Tel. 630-644175.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar inguruan. Tel. 688-811385.
- Pisua hartuko nuke alokagai Eibar, Ermua edo Elgoibarren. Tel. 618-714616.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Logela bikoa. Tel. 943-056003 edo 680-749715.
- Urkizu aldean 100 m<sup>2</sup>ko pisua alokagai. Berriztua. Tel. 653-733457.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Txokoa salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukaldia eta komunarekin. Tel. 669-293427.

### 3.2. Errentan

- Garajea alokagai Barrena kalean, Lidl-en azpian. Tel. 609-907688.
- Garaje plaza alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 600-018668.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da gizonezko nagusiak zaintzeko. Tel. 636-172765.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-674323.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo beste edozein lanetarako. Autoarekin. Tel. 680-674323.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 666-771701.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxeko-lanak egiteko. Tel. 687-114707.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 675-007271.
- Neska eskaintzen da gauzez zein egunez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 656-493864.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo sukaldari-laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 696-849004.
- Eibarko mutila jaietan eta egun soltetan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia. Tel. 650-709936.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 669-311385 edo 943-531903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.
- Mutila eskaintzen da baserriko lanetan laguntzeko edo sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 686-077316.
- Mutil euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero moduan... Tel. 676-392055.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera moduan jarduteko. Esperientzia. Tel. 690-154754.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo okin moduan eta etxeko lanetarako. Tel. 664-067280.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Interna. Tel. 676-035738.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-966611.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 659-080186.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 697-532613.
- Neska eskaintzen da kamarera moduan, garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tel. 657-142376.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta orduka tabernak edo pegorak garbitzeko. Tel. 663-786976.
- Neska eskaintzen da kamarero moduan, garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. Tel. 686-234612.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da kamarera moduan, garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-476869.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 675-471426.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta interna moduan zaintzeko. Tel. 634-771382.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Neska eskaintzen da orduka sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 636-001196.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (esperientzia) eta garbiketa lanetarako (tabernak, tailerrak, bulegoak). Tel. 660-593523.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan. Esperientzia. Tel. 688-687563.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixorak zaintzeko. Jaiegun eta gauetan ere bai. Esperientzia. Tel. 688-637510. Eli.
- Mutila eskaintzen da tabernan edo baserrian lan egiteko. Tel. 686-077316.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 690-359554.
- Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 689-436454.
- Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Erreferentziak. Tel. 650-029176.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Asteburuetan eta gauzez. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez eta umeak egunez zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 636-927812.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan Eibar eta inguruetarako. Tel. 628-526642.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita abuztuaren ere. Tel. 680-834754.

- Emakumea eskaintzen da 15.30etatik 18.30etara umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 647-044031. Marian.
- Mutila eskaintzen da tabernan zerbitzatzeko herriko jaietan edo asteburuetan. Urte askotako esperientzia. Tel. 617-894103. Edorta. edortamendi@yahoo.es
- Emakumea eskaintzen da sukaldari edo sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 696-460404.
- Neska euskalduna eskaintzen da Sanjuanetatik aurrera udan umeak zaintzeko. Tel. 600-381767.
- Neska eskaintzen da edozein ordutan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-344377 edo 943-530795.

### 4.2. Langile bila

- Familia euskaldun batek au-pair behar du eurekin bizitzeko Londresen irailetik ekainera. mirenlondon@hotmail.com
- Kamarera/o behar da egun osorako eta asteburuetarako. Tel. 620-536041.
- Neska behar da goizez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 607-293026. Asier.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Ingeles Filologian lizentziatuak edozein mailako klase partikularrak emango lituzke. Tel. 661-221411.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai


- Ekainaren 28an AC-DCk Bilbon emango duen kontzerturako sarre-rak salgai. Tel. 671-841563.
- Volkswagen furgonetarako atzeko bizikletak eramatekoa erosiko nuke. Tel. 671-841563.
- Haurrak mendira eramateko motxila (Denter Kid Konfort II) salgai. Berrria. Prezio onean. Tel. 600-855357.
- Garbigailua (Otsein Hooven) salgai. Goitik kargatzekoa. Ia berrria. Tel. 943-121051 edo 636-096283.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Ezkuntza eguneko eraztuna aurkitu da Txaltxa-Zelai inguruan (C.C. a C.V. jartzen du). Tel. 667-301166 (Marta) edo 677-174623 (Zuriñe).

## 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN  
BIDE**





**AUTO  
ESKOLA**



**ORDUTEGIA:  
09.30-13.00  
15.30-20.30**

## GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
**EIBAR**



### PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

Zatoz eta  
egin aukera!



**aurrematrikula  
maiatzaren 31tik  
ekainaren 11ra**

**matrikula  
uztailaren 7tik 13ra**

### ERDI MAILAKOAK

- MEK2 Mekanizazioa
- ME2 Mantenimendu elektromekanikoa

### SARBIDE PROBA: A eta D eredua

### GOI MAILAKOAK

- EF3 Energia berriztagarriak
- FMP3 Fabrikazio mekanikoa
- PF3 Galdaketa eta pulbimetalugia
- SR3 Elektrizitatea/Elektronika
- ST3 Telekomunikazioak
- AF3 Administrazioa
- DA3 Informatika
- IA3 Elikagaien industriak



Xemein etorbidea 19 48270 MARKINA-XEMEIN  
Tifa. 94 616 9002 [www.leartik.com](http://www.leartik.com) [sgabiola@leartik.com](mailto:sgabiola@leartik.com)

**ALFA<sup>®</sup>**

